



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2019KO ABENDUAREN 17AN
GOIZEKO 9:30EAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa.

Zinegotziak: Beñat Larrañaga Urdanpilleta eta Lur Etxeberria Gurrutxaga.

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Ez dira bertaratu: Joxe Mari Iribar Zapirain eta Itziar Basterrika Unanue.

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:

*** 2019/11/29KO EZOHIKO BILKURA.**

Batzarkideek, 2019ko azaroaren 29ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

*** 2019/12/10EKO OHIKO BILKURA.**

Batzarkideek, 2019ko abenduaren 10eko bilkurako akta gehiengoz onartu dute, Beñat Larrañaga abstenitu egin da ez zelako bilkuran egon.

**2.- KURARRAIN BASERRIKO NEKAZAL JARDUERAN 2000KO AZAROAREN 3AN
EMANDAKO BAIMENAREN BAITAN HIRIGINTZAKO ANTOLAMENDUA
LEHENERATZEKO EGINDAKO OBREI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.11/2013-0012

MAITE EZEIZA ARRIETA andereak, 2019ko maiatzaren 15ean, Kurrarain baserriko nekazal jarduera, 2000ko azaroaren 3an emandako baimenaren baitan hirigintzako antolamendua leheneratzeko egindako obren lehen erabilera baimena eskatu zuen, obra amaierako ziurtagiria aurkeztearekin batera.

AURREKARIAK – OBRETARAKO BAIMENA

Alkateak, 2018ko azaroaren 12an, 2018/1372 dekretuaren bidez, zera erabaki zuen besteak beste:

(...)

HIRUGARRENA: Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko



Usurbilgo Udala

2/2006 Legeko 224. artikulua hirigintzako antolamendua leheneratzeko ekintzei buruz ezarritakoaren arabera, MAITE ECEIZA ARRIETA andeari HILABETEKO laneguneko epea ematea, erabaki honen jakinarazpena jasotzen den biharamunetik kontatzen hasita, 2000ko azaroaren 3an emandako baimenaren baitan hirigintzako antolamendua leheneratzeko.

Laburbilduz egin beharreko lanak hauek dira:

- *Planta baja:*
 - x *Garage: Fitosanitarioen gela* eta distribuidorearen arteko horma eraitsi.
 - x *Anexo:* hiru estantziak banatzen dituen hormak eraitsi eta estantzietako obrako hornikuntza ere kendu (obrako armairu, bainugela,...).
 - x *Planoetan itxita ez dagoen estantzia* (eskailera jeitsi eta eskubiko atea): (ikus hurrengo puntua)
- Solairuak lotzen dituen barne *eskailera:*
 - x *Planta baja*-ra jeisteko: eskailera kendu eta *Anexo* eta *planoetan itxita ez dagoen estantzia* hormatu.

Leheneratzea MAITE ECEIZA ARRIETA andearen kargura egingo da. Aldatutako errealitate fisikoa leheneratzen ez bada, agindutako betetzen ez bada, udalak, subsidiarioki leheneratu dezake aldatutako errealitate fisikoa MAITE ECEIZA ARRIETA andeari ordainaraziz.

LAUGARRENA: Leheneratze lanak amaitutakoan, interesatuak honen berri eman beharko dio Udalari, honek lanak egoki egin direla ziurta dezan.

(...)

LEHEN ERABILERA BAIMENA

2019ko maiatzaren 15ean, MAITE EZEIZA ARRIETA andeak, obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, burututako obren lehen erabilera baimena eskatu du.

TXOSTEN TEKNIKO

Aurkeztutako dokumentazio aztertu ostean, 2019ko abenduaren 5ean, nekazaritza eta ingurumen teknikariak, Ibon Goikoetxea Retegi jaunak honako txostena eman du:

TXOSTENA
KURRARAIN BASERRIA 2000n EMANDAKO BAIMENAREN LEHEN
ERABILERA

GAIA: Kurrarain baserriak jasotako aginduaren betetze mailari buruzko



Usurbilgo Udala

txostena

UDAL TEKNIKARIA: Ibon Goikoetxea Retegi

ESPEDIENTE ZBKIA.: HZ.011/2013-0012

DATA: 2019-12-05

AURREKARIAK

- 2018ko irailaren 18an interesatuak, laburbilduz, ondorengo erabakia duen jakinarazpena jaso zuen:
 - hilabeteko epean 2000ko azaroaren 3an emandako baimenaren baitan hirigintzako antolamendua leheneratzeko.
 - Leheneratze lanak amaitzean, interesatuak honen berri eman behar dio Udalari, honek egoki egin direla ziurta dezan.
- 2018ko azaroak 12an, 2018/1372 dekretuaren baitan interesatuari ondorengo erabakia luzatzen zaio, besteak beste:
 - Komuna eraikitze baimena UKATZEA.
 - Jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean 2000ko azaroaren 3an emandako baimenaren baitan hirigintzako antolamendua leheneratzeko.
- Interesatuak 2018ko abenduaren 14an ondorengoa aurkezten du:
 - 2018/3731 sarrera zenbakia duen eskaera: Conchi Uriarte Seminario, ingeniariak, sinatutako 2000ko azaroaren 3an emandako baimenaren baitan hirigintzako antolamendua leheneratu den egiaztagiria.
 - 2018/3730 sarrera zenbakia duen eskaera: Conchi Uriarte Seminario, ingeniariak, eta Euskal Herriko nekazaritza ingeniari teknikoen elkargo ofizialak bisatutako dokumentua. Bertan, leheneratzearen baitan eraitsi behar zen horma bat ezin dela eraitsi justifikatzen da.
- 2019ko otsailak 25ean, Usurbilgo Udalak hurrengoa jakinarazten dio interesatuari:
 - 2000ko azaroaren 3an emandako baimenaren baitan eta 2018ko azaroaren 6an teknikari honek izenpetutako txostenaren zehaztapenen arabera LEHENERATZE LANAK EGOKIAK DIRA.
- 2019ko maiatzak 15ean interesatuak lehen erabilera baimena eskatzen du. Eskaerarekin batera obra amaierako ziurtagiria, aurrekontua eta argazkiak atxikitzen ditu.

AZTERKETA ETA PROPOSAMENA

Hurrengo dokumentazioa aurkeztu du:

- Obra amaiera ziurtagiria aurkeztu da, gaitutako teknikariak sinatuta, Euskal Herriko nekazaritza ingeniari teknikoen elkargo ofizialak ikus onetsia
- Eraikinaren fatxada guztien argazkiak.



Usurbilgo Udala

- Plano bisatuak.
- Obraren egiazko aurrekontua.
- Obraren egiazko azken egoeraren memoria eta behin betiko planoak.
- Ondasun higiezinaren gaineko zerga ordaintzen duenaren ziurtagiria dagoela ziurtatu da Udalean.

Beraz, ontzat ematen dut aurkezturiko informazioa, eta Aldeko txostena igortzea proposatzen dut. Hau horrela izanik, udalean obra berriaren deklarazio-eskriuraren fotokopia aurkeztu beharko dut interesatuak.

Ibon Goikoetxea Retegi
Ingurumen eta Nekazaritza teknikaria

Gauzak horrela, txosten teknikoa irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: MAITE EZEIZA ARRIETA andereak, Kurrarain baserriko nekazal jarduera, 2000ko azaroaren 3an emandako baimenaren baitan hirigintzako antolamendua leheneratzeko egindako obrei lehen erabilera baimena ematea honako baldintzarekin: udalean obra berriaren deklarazio-eskriuraren fotokopia aurkeztea.

BIGARRENA: Erabakia jakinaraztea interesatuari ematea.

3.- BEHAR EKONOMIKO BEREZIAK DITUZTENENTZAKO EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.

Esp.zk.: KE.01/2019-234

Ikusirik

Usurbilgo Udalari garrantzitsua iruditzen zaio herritarrek euskara ikastea. Gero eta gehiago dira Euskaltegiko matrikula ordaintzeko arazo bereziak dituzten herritarrak. Bide honetatik, behar ekonomiko bereziak dituzten herritarrei euskara ikastea erraztu nahi zaie.

Horregatik hain zuzen ere, Usurbilgo Udalak euskara ikasteko behar ekonomiko bereziak dituzten herritarrei dirulaguntzak aurreratzeko oinarriak argitaratzea aproposa ikusten du.

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituen.



Usurbilgo Udala

- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: Behar ekonomiko bereziak dituzten usurbildarrei euskara ikasteko matrikularen diru-kostua aurreratzeko oinarriak onartzea, ebazpen-proposamen honi eransten zaizkiolarik.

Bigarrena: Dirulaguntzak partida honetatik bideratzea baimentzea:
1.4200.480.335.00.01.2020

Hirugarrena: Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Laugarrena: Interesatuei epe hau ematea eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin: iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den datatik, 2020ko uztailaren 3ra bitartean (biak barne)

Bosgarrena: Oinarrien berri kontuhartzaileari emango zaio.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:45etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.